

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



5 € · 2023ko abendua
283 znb

12-21

'Hezitzailearen
begirada'
jardunaldiak

22-31

Giuseppe
Benincasari
elkarriketa

32-35

Baionako
ospitaleak sortu
sare soziala

46-48

Antzerkia,
balioak
barneratzeko

54


Atzeko atletik

Adostasun zabalik gabeko legerantz



Neska jaiotzea

Alice Dussutour



JAIOTZEN GAREN
HERRIALDEAREN ARABERA,
NESKA JAIOTZEAK
EZ DITU AUKERA
BERAK ESKAINTZEN...

TTARTTALO
www.ttarttalo.eus



#283 znb

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA
Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.
20018 DONOSTIA GIPUZKOA.

Tel: 943 37 14 08 · www.hikhasi.eus

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus

Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu,
Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugarte-txea eta Arantxa Urbe.

Aholkulariak: Ane Ablanado, Nerea Alzola, Nere Amenabar, Esti Amenabarro, Amaia Antero, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Elena Herran, Alfredo Hoyuelos, Olaia Jimenez, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Gofii, Nerea Mendizabal, Naiara Ozamiz, Karmele Perez Lizarralde, Karmele Perez Urraza, Iratxe Redondo, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Komunikazioa: Paula Estevez.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Raul Bogajo · Foku

Diseinua: Sorland.

Maketazioa: Hik Hasi.

Inprimategia: ANTZA S.A.L.

Hezkuntza Sailak onetsia (2023-11-29).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plaza-ratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



3





Aurkibidea

“

Irakasleak, ikasmaila bakoitzari dagozkion ezagutzak, elementu pedagogikoak eta didaktikoak, menderatu behar ditu, jakina. Baina, irakasleak hezkuntza aldaketaren motorra ere izan behar du

Alba Madinabeitia





6 EDITORIALA

Hautsi da anfora

8 IRITZIA

10 HILEKO IRUDIA

EAJ eta PSE-EEren baiezkoarekin onartu da lege proiektua azken-aurreko tramitean

12 GAI NAGUSIA

Nola begiratu, hala ikusi



22 ELKARRIZKETA

Giuseppe Benincasa



32 ESPERIENTZIA

Ospitaletik, sare sozialen prebentzioa

38 EKARPENA

Zer da artea?



46 AHALDUNTZE ESKOLA

Antzerkia, balioak barneratzeko


50 PROPOSAMENA

Chillidaren urtea



54 ATZEKO ATETIK

Adur Ramirez de Alda





Argazkia: Raul Bogajo · Foku

Hautsi da anfora

Editoriala





Hezkuntza Akordioan lortutako adostasun zabalik gabe, Hezkuntza Lege proiektuaren azken-aurreko tramitearen argazkia zuri-beltzean geratu da.

A rabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Akordio "historikoa" itxi zuten 2022ko martxoaren 18an EAJk, EH Bilduk, PSE-EEk eta Elkarrekin Podemos-IUk Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean. 2023ko azaroaren 29an EAJk eta PSE-EEk soilik eman diote baiezkua Hezkuntza Lege proiektuari azken-aurreko tramitean. Koloretako argazkia zuri-beltzean geratu da. Eta ez da gauza bera.

Bi urte eta erdiko edo ia hiruko prozesua izan da eta helburua gaur egungo garaietara egokitutako hezkuntza lege berri bat egitea izan da, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gaurko eta hurrengo hamarkadetako erronkei erantzuteko gai izango den hezkuntzaren markoa jartzea.

Behin Hezkuntza Akordioa eginda, Hezkuntza Legearen testua egiteko prozesuan akordioaren "espíritu" zaintzea eta bermatzea izan da egiteko nagusietako bat, hots, akordioan adostua jasotzea lege testuak ere. Horretarako, legeak argia izan behar du, eta badirudi argitasun hori lausotzen joan dela paragrafo eta paragrafo artean, eta horrekin batera alderdien arteko konfiantzari ere gauza bera gertatu zaiola, azken egunetako adierazpenetara iristeraino —hauteskunde aurreko testuinguruan—. Alderdiak ez dira gai izan prozesua bermatzeko eta amaierara elkarrekin iristeko. Ez dute euren gain hartu zegokien erantzukizuna. Marra gorriak beti daude hor, jakina, baina lodi margotzearen ondorioz marra berdeak ikustea galarazi du.

Orain azken pausoa falta da: Batzordean onetsitakoa abenduaren 21ean Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran onartzea. Eta epe guztiak amaitzean biharamuna iritsiko da. Zuri-beltzeko argazkiarekin geratzen bagara, berriro ere koloreztatzen hasi beharko da, poliki-poliki, kolore konbinazio egokiak eginez. Legeak eskaini ditzakeen aukera onak baliatzen eta garatzen joan beharko da, baldin eta euskal hezkuntza sistema propioa lortzeko bidean lagungarri badira.

Demografiaren beherakadak, legeak ezarritako hizkuntza helburuek eta segregazio egoerek hor jarraituko dute biharamunean eta herri ikuspegia izatea eta adostasunak bilatzea eskatuko dute biziraun ordeztu bizi egin gaitezen.



Alicia Fernandez Huerta

Oiongo Ramiro de Maeztu eskolako irakaslea
eta *hik/hasitarra*

Espektatiben boterea

Ez dut esango irakasleok umeengan ditugun espektatibak haien ikaskuntza prozesuan definitiboak direnik, baina uste dut eragin handia dutela.

Berez, umei buruz ditugun aurre-ezagutzak eta espektatibak ez dira zertan txarrak izan, (batez ere pedagogikoak eta objektiboak baldin badira). Izan ere, itxaropen horiek ikasleei nolabaiteko laguntza ematera eramaten bagaituzte eta beren ezaugarrietara egokitze-ko baldin badira, ikasleen onerako izango dira. Hori bai, gure pertzepzioen ondorioz umeari ikaskuntzarako ezgaitasuna (benetakoa ala ez) adierazten badiogu, eragina oso negatiboa izan daiteke.

Gure espektatiba negatiboen adibideak kurtso hasieratik ikus daitezke, talde berria egokitzen zaigunetik. Zenbat izen atzerritar i, zenbat ijito, zenbat neska edo mutil... ikusten diren begiratzen dugu. Agerian gelditzen da, hortaz, askotan espektatibak egoera sozioekonomikoarekin, arrazarekin, kulturarekin edota generoarekin lotuta daudela.

Beste batzuetan umearen gaitasunekin lotzen ditugu aurreikuspen horiek. "Ikasle on" batzuek egiten dituzten akatsak onartzen ditugu, haien prozesuan beharrezkoak ikusten ditugu, eta beste ume batzuen akatsen edo zailta-

sunen aurrean, aldiz, alarmak pizten ditugu, erritmo desberdinak daudela ahaztuz.

Txanponaren beste aldean "espektatiba onak" daude: *Pigmalion efektua* deritzona.

Efektu horri esker, ume baten gaitasunetan konfiantza erakusten dugunean, konturatu gabe, harreman hurbilagoa sortzen dugu, gehiago goraipatzen dugu, maizago galdetzen diogu eta akatsen aurrean, aukera gehiago ematen dizkiogu.

Zailena hori ikasle guztiekin egitea da, eta ezinezkoa dirudien arren, hainbat praktikek kontrakoa erakusten digute: irakasle batzuek beren ikasleez ongi hitz egiten dute, eta ardura handia erakusten dute guztiek aurrera egin dezaten. Ez badute hasiera batean lortzen, euren metodoak berrikusten dituzte, oztopoak identifikatuz, eta zailtasun gehien dituzten ikasleak modu batean edo bestean laguntzen dituzte. Umea baino lehenago, euren praktika jartzen dute zalantzan.

Halere, ikaslearen hezkuntza-arrakasta irakaslearen ardurapean soilik jartzea, geure burua gezurra esatea litzateke. Gaur egungo gure sistemak asko du egiteke ekitatearen bidean, baina aldi berean, guk zeozer egin dezakegu. Azken batean, guk ikasleengan sinesten ez badugu, nork egingo du ba?



Xabier Sarasua

Iraleko irakaslea eta *hik/hasitarra*

Ikasleak hezi ala umeak hazi?

Egungo hezkuntza-sistema XVIII. mende amaieratik aurrera garatu zen, estatuek bultzatuta, haurrak "gizarteratzeko" helburuz; eta oraindik ere estatuen kontrolpean eta haien interesen arabera funtzionatzen du. Eskubide unibertsa- la izanik, haurraren onerako ari garela sinesten dugu, baina ohiko hezkuntza-jarduerak ez die haren premiei erantzuten, ezta haren erritmoak errespetatzen ere. Are gehiago: ikasteko berez duen grina higatzen du. Nork defenda dezake egungo eskola haurrarentzat osasun- garria denik?

Estatuak badaki zer-nolako pertsonak behar dituen, eta zeregin hori ematen dio hezkuntzari. Bai hezitzaileok gure betebeharra zintzo bete ere, zertan ari garen gehiegi hausnartu gabe. Baina zer behar du haurrak, norbera izateko bidean laguntzea besterik...? Dakarren barne-indarraren, gaitasunen eta pasioaren bidez, bere lekua aurkitu nahi du gizartean, eta hari zer ekarpen egin nahi dion deskubritu. Ane Ablanedok dioen moduan, hezitzaile ez baina bidelagun behar gaitu, hazte-prozesuan presente eta lagun.

Nola, ordea? Hezitzaileok helduaren ikuspegi- tik "irakatsi" ohi diogu haurrari. Errealitatea za- tikituta landuarazten diogu, eta egiten duenak

ez du berezko zentzurik izaten harentzat. Gero eta informazio-unitate solte gehiago ematen dizkiogu, zuzeneko esperientzian oinarritu gabe. Ekintzarako bultzada barrutik sortzen denean, aldiz, pasioaren indarrak lagunduko dio haurrari borondate sendoa eta iraunkorra garatzen. Horretarako, baina, lehenik haurren garapenari buruzko jakintza sakona behar du benetako bidelagun izan nahi duenak. Esate- rako, badira garapen-bidean jauziak egiteko aldi egokiak, Montessorik ondo zioenez, eta haurrari ingurune egokia eskaintzen badiogu, bere ekimenez egiten dituen jarduerak ahalbi- detuko diote garapen egokia.

Edonola ere, aipatu jakintzaz gain, lanketa pertsonal handia ere behar da, haur bakoitzari begiratzen ikasteko; izan ere, haurrari erres- petuz eta enpatiaz begiratzen diogun aldiro, haren baitako izatearen zer edo zer agertzen zaigu.

Begirada bikoitz hori behar dugu helduok, haurrari hazteko bidean benetan lagundu nahi badiogu: batetik, fase bakoitzean garapena zerk/nola sustatzen duen; eta, bestetik, haur jakin batek zer behar duen une jakin batean. Ez izan zalantzarik: bidelagun izatea artea da, eta maitasun handiz soilik lor daiteke artelan eder bat.



» Argazkia: Raul Bogajo, Foku · Gasteizen, 2023ko azaroaren 29an.



Hileko irudia

EAJ eta PSE-EEren baiezkoarekin onartu da Hezkuntza Lege proiektua azken-aurreko tramitean

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoa-ko Hezkuntza Lege proiektuak azken-aurreko tramitea igaro du. Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean alderdi politikoek euren bozka eman zuten azaroaren 29an: EAJk eta PSE-EEK alde bozkatu zuten eta EH Bilduk, Elkarrekin Podemos-IUK, PPk eta Talde Mistoak aurka. Oposizioak gaitzetsi duen egungo hizkuntza-ereduei eusten die onartutako testuak, EAJk eta PSE-EEK adostutako zuzenketa mantenduta. Abenduaren 21ean Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran azken bozketa egingo da.



Gai nagusia

Nola begiratu, hala ikusi

Hik Hasik udazkenero egiten dituen Haur Hezkuntzako jardunaldietako gaia hezitzailearen begirada izan da aurtengoan. Azaroren 24an eta 25ean egin dira jardunaldiak Bilbon eta Donostian, Anna Luna Muns psikomotrizista katalanarekin, Huheziko ikerlari eta irakasle Eider Salegirekin eta Itziar Arregirekin eta Iruñeko San Fermin ikastolako irakasleekin.



» Eider Salegi, Anna Luna, Itziar Arregi, Itsaso Etxarri, Begoña Usoz eta Uxue Escribano izan ziren hizlariak.

Hezitzailearen begiradari eskaini dizkio **Hik Hasik** aurtengo Haur Hezkuntzako jardunaldiak. Nola ikusten ditugu haurrak? Zer ikuspegi daukagu haurtzaroaz? Eta Haur Hezkuntzaz? Haurra garatzeko gaitasunak dituen subjektu aktibo gisa behatzen du gure soak ala helduak edukiz bete behar duen objektu pasibo moduan? Horra hor guztiaren abiapuntua. Hezitzailearen begirada tradizionala (instruktibista) ala berritzailea izan (konstruktibista), oso desberdina izango da hezitzaileak hartuko duen rola, egingo dituen esku-hartzeak, eskainiko duen heziketa eredua, eta baita, beraz, haurraren bizipena eta garapena ere subjektu ala objektu sentitu. Nola begiratzen

diogun haurrari, hala ikusiko dugu haurra; eta harago, hala ikusia sentituko da haurra. Huheziko Eider Salegi eta Itziar Arregi ikerlariak eta irakasleak, Anna Luna pedagogo eta psikomotrizista katalana, eta Iruñerriko San Fermin ikastolako Uxue Escribano, Begoña Usoz eta Itsaso Etxarri irakasleak izan ziren hizlariak. Orotara, seiehun hezitzailetik gora batu ziren Bilbon eta Donostian izan ziren jardunaldietan.

Haurraren gaitasunetan sinesten duen begiradatik mintzatu ziren hizlari guztiak. Salegiren hitzek laburbiltzen dute zer-nolako begirada balioesten duten hizlariak: "Haurraren gaitasunetan oinarritzen den pedagogiatik



begiratu bagenu, haurrak helduarekin lotura esanguratsuak eraikitze gaitasunak dituela ulertuko genuke, bere burua eta testuingurua aurkitzeko, esperimentatzeko, lotsatzeko, erakusteko, bere parekideekin harreman positiboak eraikitze, lankidetzan aritzeko, loturak eraikitze, hainbat modutan komunikatzeko, mugitzeko, adierazteko, erabakiak hartzeko... Begirada horretatik, hezitzailearen eta eskolaren egitekoa haurren gaitasunei bide ematea izan beharko litzateke". Salegik eta Arregik *Ebaluazioren ikuspegi aldaketa: haurra ebaluatetik testuingurua ebaluatzeraz* izeneko hitzaldia eskaini zuten.

Huhezikoen aburuz, helduaren eta eskolaren helburua haurren ongizatea izan beharko litzateke, Salegik adierazi zuenez: "Ongizate hori noiz lortuko da? Haurrari bere gaitasunak garatzeko testuingurua eskaintzen diogunean. Eta hori noiz gertatzen da? Haurra gustura, seguru eta konfiantzan sentitzen denean; eskolak horretarako testuingurua eskaini behar dio haurrari. Haurrak erdigunean egon behar duela eta protagonista izan behar duela esaten dugu, beraz, gure lanean haurrak izan behar du ipar esku-hartzeak diseinatze-ko garaian. Horretarako, ezinbestekoa da kalitatezko testuinguru bat eskaintzea haur horri, haren beharrak kontuan hartuko dituen, baina baita irakaslearen beharrak ere kontuan hartuko dituen".

Begirada ulerkorra

Hezitzailearen begiradak babesa eskaini behar dio haurrari, Anna Lunaren aburuz. Luna pedagogo terapeuta, psikomotrizista eta Asefop elkarte psikomotrizisten formatzai-

lea da, eta gaur egun erretreta hartua baldin badauka ere, aktibo jarraitzen du formazioak ematen eta Bartzelonako arreata goiztiarreko sareak gainbegiratzeko. Lunarentzat hezitzailearen begiradak haren lana ez ezik, haurren auto-irudia eta, beraz, bizipena eta autoestimua baldintzatzen ditu, beraz, hausnartu eta aztertu beharreko elementua izango litzateke hezitzaile bakoitzak eta ikastetxe bakoitzak haurrari (ikasleari) eskaintzen dion begirada: "Haurrak kontuan hartzen dugula eta onartzen dugula sentitu behar du. Umeak oso ongi ulertzen du helduaren barneko begirada hori:

badaki erreprimitzen duen begirada den, babesten duen begirada den, onartzen duen begirada den... Hezitzailearen begirada ulerkorra eta lagungarria izan behar da eta espazio bat utzi behar du umea zabaltzen joan dadin".



Haurren ongizatea nola lortuko da? Bere gaitasunak garatzeko testuingurua eskaintzen diogunean; haurra gustura, seguru eta konfiantzan sentitzen denean

Eider Salegi, Huheziko irakaslea

Behaketan zentratu zen Anna Luna, *Behaketa eta emozioak* izan zen,

hain zuzen ere, haren hitzaldiaren izenburua. Behaketa, Lunaren aburuz, funtsezko tresna da 0-3 urte bitarteko haurrekin konektatzeko. Baina hezitzaileen eta bereziki Haur Hezikuntzako hezitzaileen lana balioetsiz hasi zuen bere hitzaldia: "Haur horiei pertsonak izaten laguntzen diegu, eta lehendabiziko urte horietan ez baldin badiugu ongi eratzen laguntzen, hurrengo urteetako ikaskuntzak ez dira ongi ezarriko. Hezitzaileok jartzen duzuen oso eskuzabala da, ez baituzue zuen lanean zuen ezagutza soilik jartzen, zuen izate osoa jartzen duzue, zuen bihotza, eta hori aitortuz hasi nahi dut hizketan". Izan ere, haurrekin dagoen hezitzaileak, haurrek zer behar duten



behatuko duen hezitzaileak, lehendabizi, bere buruari begiratu behar dio: “Haurrak behatu nahi baldin baditugu, geuk, helduok ezin dugu zamatuta egon; kanpotik informazioa jaso nahi baldin badugu, barnea ezin dugu betetgia izan, eta beraz, geuk ere prest egon behar dugu, geure buruarekin prest, konektatuta eta erlaxatuta”. Horretarako, Salvador Daliren *Mujer mirando por la ventana* koadro errealistan dagoen emakumeak iradokitzen duen *nor bere baitan biltzeko egoera (estado de ensimismamiento)* aldarrikatzen du adituak: “Garrantzitsua da gelditzea eta nor bere baitan biltzea, kanpoko inputik gabe; norbere sentsazioekin, emozioekin, historiarekin eta esperientziarekin konektatuta, nor bere burua behatuz”. Besteak behatu aurretik, hau da, hezitzaileak haurrak behatu aurretik, nork bere burua behatu behar duela uste du Lunak: “Haurrak behatu behar ditugunean, geure burua behatzea garrantzitsua da, eta bereziki 0-3 urte bitarteko umeen kasuan, auto-behaketa egin behar dugu, nire egoera garrantzitsua izango baita behaketan, hurrek eta egoerek erresonantziak eragingo baitituzte nire baitan”.

Erantzun edo soluzio bat bilatu nahi dugu-nean, erreminta bila jotzen dugu behaketara, “hori da behaketarekin daukagun fantasia”, adierazi zuen Lunak. Behatzaileak begirada zabala izan behar du, Lunaren aburuz: “Normalki behaketa eskari batetatik abiatzen da, helduari interesatzen zaion zerbaitetik. Eskaria sintoma bati lotuta egoten da, baina, haur batek erakutsi dezakeen sintoma bat ulertu nahi baldin badugu, lehendabiziko pausoa



» Anna Luna pedagogo eta psikomotrizista katalana Bilbon eskaini

sintomatik harago behatzea izango litzateke, globaltasunari begiratu behar diogu eta horrek azalduko digu sintoma”. Horretarako, alabaina, presarik gabe lan egitea funtsezkoa izango da. “Begirada zabaltzeko mantso joan behar dugu; begirada itxia eta konkretua baldin badaukagu erratu egingo gara, daukagun kezka lehenbait-lehen konpondu nahi izateak erratzera eraman gaitzake, beraz, ezinbestekoa izango da profesional gisa antsietatea kontrolatzea”.

Lunak argitu zuenez, behaketa ez da inoiz erabat objektiboa izango, begirada ez delako objektiboa: “Behaketa objektiboa egin nahiko genuke, baina nire begiradan nigandik mugitzen den zerbait dagoenez, ez da objektiboa



zuen hitzaldiko une batean.



Haur batek erakutsi dezakeen sintoma bat ulertu nahi baldin badugu, lehendabiziko pausoa sintomatik harago behatzea izango litzateke; globaltasunari begiratu behar diogu

Anna Luna,
Pedagogoa eta psikomotrizista

Zertaz ari gara, zehazki, behaketaz ari garenean?

Anna Luna pedagogo eta psikomotrizistak beste hainbat adituren hitzak ekarri zituen behaketaz ari denean, zehazki zertaz ari den ohartarazteko: **Lola Garcia Olalla** psikologo eta psikomotrizistaren hitzak ekarri zituen: "Behaketa datuen aukeraketa eta egituraketa prozesu bat da. Datuak hartu eta horiek esanguratsu bihurtzen ditut beste datu batzuekin elkartu eta zentzua aurkitzeko". **Bernard Aucouturier** psikomotrizistaren arabera, behaketak "deformazio subjektiboak onartzea dakar". **Mariangelo Gardini eta Carlos Mas Perez** autoreentzat behaketa ez da hezitzaileak soilik egiten duen lan bat, "'-rekin egotea' esan nahi du, espazioan eta denboran arreta jartzea". **Marcel Postic eta Jean Mari de Ketele** autore frantsesen arabera, "hautematek harago doan prozesua da behaketa, sentsazioak antolatzen dituen". **Mauricio eta Rebecca Wilden** hitzak ere ekarri zituen: "Behatzea ez da begiratzea, ezta inbaditzea ere; behatzea haurrak komunikatzen diguna hautematea da, ikusten ari garena ulertzea da, benetan garrantzitsua den hori antzematea, modu egokian jokatu ahal izateko haur bakoitzaren bizi prozesua maitasunez errespetatuz".



» Hezitzailearen begirada jardunaldietako Donostiako saioan hezitzaileak hizlariak entzuten.

18

izango, sentitzen dudan horri arreta jarri behar diot, beraz. Gainera, neurozientziak erakutsi digu beste bat behatzen dugunean gure garunak mekanismo mimetiko batzuk jartzen dituela martxan, neurona ispiluengatik, eta behatzaileaz gain, haurra bera ere neurologikoki aktibatu egiten duela behaketak". Eta neurozientziaren antzeko ondorioetara iritsi da, baita ere, psikoanalisi erlazionala, Lunaren arabera: "Psikoanalisi erlazionalak erakutsi digu emozionalki konektatuta gaudela, eta gizaki batek beste batek sentitzen duena senti dezakeela, hau da, norbait sufritzen ikusten dugunean geuk ere sufritu egin dezakegu, edo ondokoa pozik edo haserre dagoenean, guk ere gauza bera sentitu dezakegula". Behatzaileak, beraz, neurozientziak eta psikoanalisi erlazionalak egindako ekarpenak kontuan izatea gomendatzen du Lunak. Horrez gain, behatua den haurrari behatzailearen begiradak nola eragiten dion ere argitu zuen: "Kontuan hartu behar dugu haurrari eragin egiten diola norbait begira edukitzeak, eta horrek, batzuetan, hau-

rrak ikasgelan izan ohi duen jarreraz bestelako jokaerak izatea ere ekar dezake".

Behaketaren helburuak

Hasieran aipatu zuen moduan, askotan behaketa hezitzailearen kezka batetik abiatzen da, baina ikuspegi zabalagoa edukitzea proposatu zuen adituak, eta beste hainbat helburu lotu zizkion behaketari:

- Gertatzen ari denaren errealitatea ezagutzea.
- Erlazioetan gertatzen diren interakzioak aztertzea eta ulertzea.
- Esku-hartzea egiko erabakiak hartzea.
- Garapena baloratzea; ikasturtearen hasieran eta amaieran behaketak eginaz, adibidez, haurraren garapena baloratzea. "Behaketa erraza da, eta horretan trebatua ez dagoen hezitzaileak bere buruari jarri diezaiokeen lehen lana izan daiteke 0-3an, iraila eta urria saihestuz, egokitzen zailtasunagatik".



Helburu horiez gain, egunerokoan “modu naturalean” egin behar ditu hezitzaileak behaketak gelan: “Batetik, haurrak euren indibidualtasunean ezagutzeko beharrezkoa da behatzea, haur bakoitza nola gerturatzen den edo ez den taldera; nola erlazionatzen den materialarekin, nola mugitzen den... Gelan izan ditzakegun, zortzi, hamabost edo hogeitxiki horie, bakoitza izaki indibidual moduan, bere bagajearekin eta une zehatz bakoitzean bizitzen ari denarekin, ezagutu behar ditugu. Bestetik, talde dinamika ezagutzeko ere garrantzitsua da behaketa egunerokoan, era horretan helburu pedagogikoak ere egokitu ahal izango ditugu taldearen nolakotasunera”. Banakoez eta taldeaz gain, hezitzaileak bere burua behatu behar du egunerokoan eta modu naturalean, “norbere emozioen jabe egiteko, indarrak neurtzeko...”. Ebaluaziorako ere balio du behaketak.

Nola egin behaketa?

Behaketak ba al dauka teknika zehatzik? Behatutako guztia erregistratzeko garaian, hainbat teknika edo erreminta baliatu ditzake hezitzaileak. “Kanpotik datozen erremintak edo plantillak norbere egitea zaila da, eta horien helburua, normalean, behaketa prozesua azkartzea da, baina kontua ez da azkartzea, behaketa protokoloa bihurtzen denean, protokoloa bete bai, baina ez ditugu behaketaren helburuak beteko”. Behaketaren erregistroa egiteko hainbat modu edo teknika egon daitezke beraz. “Plantilla batetik abiatuta, aspektu zehatz batzuk erregistratu ditzakegu; momentuan ohar batzuk hartu eta ondoren behatu dugunaren narrazio bat idatzi dezakegu, behatu duguna berreskuratzeke denbora hartuz...”. Gelan, behaketaren unean, koaderno eta arkatza hartu eta ohar guztiak idaztea, ordea, ez litzateke ideiarik onena izango, Lunaren iritziz: “Ikasgelan gauza askok arreta eskatuko didate eta adi egon beharko dut, eta ondoren hartu beharko

dut horiek guztiak transkribatzeko denbora. Transkripzioaren teknika neureganatzen noan heinean, gero eta detaile gehiago jaso ahal izango ditut”. Grabazioak egitea behaketa erregistratzeko modu aproposa izango litzateke, adituaren arabera.

Behaketa “objektiboagoa” izateko, kanpoko behatzaile baten begiradak lagundu ohi dio hezitzaileari. Hain zuzen ere, gainbegirada hori eskaini izan du (eta eskaintzen du) Lunak urte askoan. Horretarako garrantzitsua da hezitzailearen eta kanpoko behatzailearen arteko konfiantza: “Hezitzaileak kanpoko begirada onartzeko, behatzailea ezagutu egin behar du, ez da epaitua sentitu behar, ezta deseroso ere, egoera defentsiboak saihesteko; baizik eta laguntza sentitu behar du”. Kanpoko behatzaileak begirada zabalagoa izan ohi du, ez baitago elkarrekintzan inplikaturik: “Sekuentzien jarraikortasuna lortuz behatutako ekintzak deskribatzen ditu, bere erresonantzia emozionalak adierazten ditu, ‘niri hau eragin dit’; andereñoaren ekarpenak kontuan dauzka hipotesiak planteatzeko garaian, kanpoko behatzaileak ez baititu haur bakoitzaren historia eta familia ezagutzen. Andereñoaren ezinegonak entzuten ditu eta baliabideen bilaketan laguntzen dio”. Hezitzailearen eta kanpoko behatzailearen artean, etikak zeregin garrantzitsua du, Lunaren aburuz: “Etikak mugitu behar dugu errespetutik eta epaiketarik gabe, ahalik eta ekarpen handiena eginaz, eta elkarrekin lan handia eginaz”.



20

Behaketa, eraldaketarako tresna

San Fermin ikastolak 14 urte daramatza eraldaketa prozesuan. Behaketa eraldaketaren erdigunean egon da. Itsaso Etxarri, Begoña Usoz eta Uxue Escribano irakasleek aurkeztu zuten esperientzia.

Maila bakoitzeko lau lerro dituen ikastola handia da San Fermin ikastola, Iruñerrian kokatua. Duela 14 urte hezkuntza eredu eraldatzen hasi ziren, Uxue Escribano Haur Hezkuntako koordinatzaileak adierazi zuenez. “Gauza asko zalantzan jarri genituen: Zer egiten dugu? Egiten dugun horrek benetan laguntzen al dio haurren garapenari? Zergatik egiten ditugu gauzak egiten ditugun moduan? Zertarako

egiten dugu hau guztia? Haurrari bere garapen integralean laguntzen ari al gara? Eskaintzen dioguna benetan egokia al da? Zerbait hobea eskaini al diezaiekegu hurrei eta taldeari? Eraldaketa gure barrutik hasi zen, agindua ez zen kanpotik etorri”.

Bazekiten zer egin nahi zuten; bazekiten zergatik eta zertarako. *Nola* jakiteko, formakuntza bilatu zuten. Begirada aldaketa izan zen pres-

takuntza haien funtsa: “Umea begiratzeko eta umearen garapena ulertzeko beste modu bat eskaini ziguten prestakuntza haiek”. Ondoren, Arizmendi ikastolaren eskutik Konfiantzaren Pedagogia aurkitu zuten, “aurkikuntza ikaragarria izan zen; argitasuna eman zigun, pertsonarengan jartzen du begirada, eta pertsonarengan eta haren gaitasunetan konfiantza izan behar gurela ikusi genuen”.

Jarraian, Begoña Usozek adierazi zuenaren arabera, euren neurritik egokituko zen proiektu pedagogikoa eraikitzen hasi ziren, haurrari bestelako testuinguru bat eskaini behar ziotela adostuta: “Alde batetik, espazioetan eragin behar gurela ikusi genuen; ordura arte gela bakarra eskaintzen genuen talde bakoitzeko eta, aurrerantzean, gela eta espazio partekatutak eskainiko genituela erabaki genuen. Ikas-kuntza-esperientzietan eragingo gurela ere erabaki genuen; hau da, pedagogia zuzendua eskaintzen jarraituko gurela adostu genuen baina zirkulazio autonomoa ere eskainiko gurela. Heldu erreferentean ere eragin nahi genuen; ordura arte haur talde bakoitzeko heldu erreferentea zena maila bereko beste haur guztientzat ere heldu erreferente bihurtu ote zitekeen hausnartu genuen. Ikastolaren eta familiarren arteko harremanetan ere eragin nahi genuen, elkarlana areagotzeko eta haurraren bidelaguntza ahalik eta modu berdinean egin ahal izateko”.

Haurra erdigunean; heldua non?

Aldaketekin martxan hasi zirenean, zailtasunak, oztopoak eta zalantzak agertu ziren. “Haurra erdigunean jarrita, bidelagun izateko heldua beste plano batean kokatu behar zela argi geneukan; baina ez genekien nola”. Berrir prestakuntza izan zen gakoa. Alvaro Beñaran psikomotrizistarekin hainbat formazio egin zituzten, eta behaketa oinarri izan zen horietan: “Grabazioak egin genituen eta behatu egiten genituen, hausnarketak eginaz. Hn behaketa




Bidean suertatuko zaizkigun galderei erantzuteko, behaketa eta etengabeko hausnarketa pedagogikoa baliatuko ditugu

Itsaso Etxarri, San Fermin ikastolako irakaslea

zertan oinarritu behar den ulertu genuen eta eraldaketa egiteko baliatuko genuen tresna behaketa izango zela adostu genuen. Bidean aurkituko genituen zalantzak behaketaren bidez argitzen saiatuko ginela adostu genuen”.

Behaketak bi alderditan lagundu die prozesuan, Itsaso Etxarri adierazi zuenez: “Alde batetik, gure ahulguneak eta indarguneak identifikatzen lagundu digu, eta bestetik, testuinguruari egitura ematen. Indarguneen detekzioa garrantzitsua izan da zer mantendu nahi dugun eta nondik joan nahi dugun argitzeko, eta beharren detekzioa egitea ere garrantzitsua da erronkak aurreikusten laguntzen digulako. Behaketa hausnarketa pedagogiko bati lotuta dago. Gure artean elkartzen gara, eztabaida pedagogikoak izaten ditugu eta erabakiak hartzen ditugu”. Behaketa, hausnarketa eta erabaki pedagogikoak dira, beraz, San Fermin ikastolaren prozesuaren ardatz: “Aurrera begira, bidean suertatuko zaizkigun galderei eta zalantzei erantzuteko, behaketa eta etengabeko hausnarketa pedagogikoa baliatuko ditugu. Hezkuntza ereduaren eraldaketa bizirik dagoen zerbait da, dinamikoa. Zergatik? Zer? Zertarako? Nola? Noiz? Galdera horiek behin eta berriz erantzun beharko ditugu ibilbidean”.



Haurren neuropsikiatra, psikiatra eta psikoanalista da Giuseppe Benincasa italiarra, baina psikomotrizitatearekin ere lotura handia du Bernard Aucouturier-ekin lankidetzan eta psikomotrizisten formazioko lantaldeekin lanean aritua delako. 'Subjektu emailea eta historiaren eraikuntza' hitzaldia eskaini zuen Gasteizen, Luzaro psikomotrizitate eskolak antolatutako jardunaldietan. Subjektuaren eraikuntzaren gaian sakondu du Benincasak eta pertsona orok subjektu emaile izateko esperientzia bizi beharko genukeela dio.

Giuseppe Benincasa

HAURREN NEUROPSIKIATRA, PSIKIATRA
ETA PSIKOANALISTA

“ Umea ez da zaindu
behar dugun
objektua,
deskubritu
behar dugun
subjektua baizik



Umea subjektu emaile gisa hartzeari buruz aritu zara zure hitzaldian. Zer esan nahi du horrek, zehazki?

Umea gainerako pertsonekin harremanetan jartzen dela bera errekonozitu dezaten. Alde batetik, errekonozitu dezaten eta, bestetik, interlokutorea nor den jakiteko. 'Ni existitzen naiz, nor zara zu? Existitzen naiz, asko dut emateko eta besteekin harremanetan jartzeko desioa dut hain zuzen ere existitzen naizelako' esateko modua da.

Umea hainbat gauzekin (edukiak, jakintzak, jarrerak...) bete behar den ontzi baten gisan ikusteari uztea izango litzateke, ezta? Umeek emateko asko dutela ikustea, azken batean.

Hori da. Emateko zer duten ikusi behar dugu, haurrek barrutik kanpora emateko zer duten ikustea da.

Horrek esan nahi du helduaren begirada guztiz aldatu behar dela.

Bai. Umea hezi behar dela eta helduak pentsatzen duen moduan moldatu behar dela eta





Umea hezi behar dela eta helduak pentsatzen duen moduan moldatu behar dela eta izan behar duela pentsatzetik, umeak besteari emateko eta oparitzeko barruan duena deskubritzera pasatzea da

izan behar duela pentsatzetik, umeak besteari emateko eta oparitzeko barruan duena deskubritzera pasatzea da.

Umea ez da helduak eskultore baten gisan zizelkatu behar duen eskultura bat.

Ez. Besteekin harremanetan nola jartzen den begiratu behar dugu, barrutik kanporantz mugimenduan nola jartzen den eta zer oparitzen digun.

Eta zer oparitu diezaguke ume batek?

Harremana, elkarren arteko trukaketa partekatzearen plazera. Adibidez, jaioberrri bat eradoskitzen ari den amak 'Zeinen polita! Irribarre egin dit eta irribarre horrekin eskerrak eman dizkit' pentsa dezake, baina irribarre hori ez da boluntarioa, ekintza erreflexua da. Amak, ordea, irribarrea nahita egin duela pentsatzen du eta hori eskertu egiten du. Eskertza horrek, umea zerbait ematen ari den subjektu gisa ikusteak, harremana aldatzen du. Umea handiagoa denean, berriz, koilararekin janaria ematen ari zarenean une batez, agian, zuri emango dizu baita ere. Une horretan trukaketa bat dago, janaria ematearen kasuan ekintza boluntarioa da eta intentzioa oso argia da. Hor umeak, besteari emateko aukera duenez, bere burua subjektu gisa deskubritzen du, ez baitu soilik jasotzen. Ume bakoitzak bere bat-bateko aktibitatea oparitu dezake oparia egiten ari denaren kontzientziarik izan gabe eta umearentzat zoragarria da, oinarritzkoa, besteei zerbait oparitu diezaiekela ikustea.

Zer sentitzen du umeak emateko gai dela ikusten duenean? Emateko gai denaren kontziente al da?

Ez da kontziente helduok ulertzen dugun zentzu horretan. Baina sortzetikoa duen aktibitate motorearekin erantzuten du, harreman horri erantzuna eman nahi diola-



ko. 'Zu nigana mugitzen bazara, ni zugana mugituko naiz' premisarekin jokutzen du.

Interakzio horretan sakontzea eta haurra kontuan hartzea da, beraz, gakoa. Gaur egun asko jarraitzen diren haziera ereduek, ordea, haurraren erritmoak eta beharrak alde batera uzten dituzte eta hainbat helburu edo lorpen garapenaren fase zehatzekin lotzen dituzte. Zer iritzi duzu haziera ereduei buruz?

Ez dago umeak hazteko eta hezteko formula zehatzik, ezta hezitzaile edo guraso ona izateko jarraitu beharreko erre-zeta zurrunik ere. Umeak ez digu eskatzen gauza jakinak egitea, desio duena da bere burua hamaika eratara garatu daitekeen harreman batera zabaltzea, ez hau eta hori eta bestea egin behar dela dioten haziera metodoei jarraituta aritzea. Hasieran ez du kontzientziarik, ez du pentsatzen



Umea hainbat
atentziorekin bete
behar den objektu gisa
hartzten dugu eta ez
subjektu gisa



Giuseppe Benincasa itzultzaile lanak egin zituen Rikardo Aceborekin batera.



negar egingo duela amaren kontzientzia estimulatu nahi duelako, negar egiten du zerbait gertatzen zaiolako. Behar fisiologikoa da, baina horrek gurasoengan beregan gerturatzeko jarrera bultzatuko du. Eta gurasoak hurbiltzen direnean, umea ikasten joango da negar egiten badu, erantzuna izango duela. Beraz, dei horretan aktibo izaten hasiko da. Orduan gurasoak umeari hurbilduko zaizkio eta bera ezagutzen hasiko dira, emozionalki nolakoa den ikusten joango dira eta ulertuko dute umeak emozionalki ere haien beharra duela, ez duela soilik gurasoen ekintzen beharra. Horrek sortzen du harremana eta modu horretan pizten da gurasoengan subjektuaren kontzeptua. Adi egon behar dute seme-alaba bakoitzarekin, guztiak desberdinak direlako eta gurasoentzat sormenezko esperientzia bat da, etengabe aldatzen ari delako. Gizartearen jarrera, ordea, umearekin zerbait egin behar dugula pentsatzea izaten da eta egin beharreko hori parametro zientifiko batzuen mende jartzen da. Modu horretan umea hainbat atentziorekin bete behar den objektu gisa hartzen dugu eta ez subjektu gisa. Oraindik pertzentilekin eta helburu jakinak une bertsuetan lortu behar horrekin jarraitzen dugu.

Eta horrek tentsioa sortzen du gurasoengan eta hezitzaileengan.

Bai, eta, batez ere, uniformetasuna sortzen du. Ikasketak plazera izan behar du, ordea. Pertsona guztiek hazteko prozesu bera jarraitu behar dutela pentsatzen dute eta ez da horrela. Primitibotzat hartzen ditugun zibilizazioek erakusten digute hori ez dela horrela.

Haurra subjektu emailea da, baina baita desiratzen duen subjektua ere: umeak desioak ditu.

Umea subjektu gisa hartzen baldin badugu, desioak dituela kontuan hartuko dugu.

Txanpon beraren bi aldeak dira: umea jaso eta eman nahi duen subjektua da. Gurasoek borondatezkoak ez diren adierazpen horiei erreparatzen badiete, guztia aldatzen da. Haurraren benetako desioei begiratzen dieten gurasoak dira egoki hazten laguntzen diotenak. Baina badira umeei gauza jakin bat egin ezean, edo modu jakin batean egin ezean dezepzioa sortuko dietela esaten dieten gurasoak. Modu horretan subjektu emaile izateko desioa mozten diote umeari.

Nolako desioak izaten dituzte umeek?

Garapenak aurrera egiten duen neurrian, aldatzen joango dira. Gauza bat da desioa artikulatuagoa dagoenean, umea kontzienteago denean eta errepresentazioak dituen, gaitasun sinbolikoa du eta badaki zer nahi duen, eta beste gauza bat da desio inkontzientea, horren aurretik gertatzen dena.



Umea subjektu gisa hartzen baldin badugu, desioak dituela kontuan hartuko dugu. Txanpon beraren bi aldeak dira: umea jaso eta eman nahi duen subjektua da




Desio horrek bere beharretan al du jatorria?

Abstraktua da. Bera izateko bizi-beharra da. Ez dira behar primarioak. Adibide batekin azaltzearren, lore desberdinak lantzen ditugunean, lore bakoitzak bere genetikari lotutako hazteko modua izango du eta inguruneke baldintzek ere eragingo diote. Batzuek gehiago ureztatuko dituzte, beste batzuek gutxiago, ongarria botako diete ala ez... Baina lore guztiak ezberdinak dira. Eta nahiz eta tratu bera eman, ez dira berdina haziko, hain zuzen ere ezberdinak direlako. Pertsona bakoitzak izateko gaitasun propioa du eta izateko modu ezberdin hori errespetatzea oso garrantzitsua izango litzateke, gurasoengandik eta helduengandik ezberdina izateko duen modua errespetatzea.

Nola jokatu beharko genuke helduok desio horien aurrean?

Umea zainduz, elikatuz, sostengatuz. Baina, galdera, beharbada, ez da nola jokatu behar dugun, nola egon behar dugun baizik. Adin txikikoen aukeren alde egin beharko genuke, posible ez diren aukerak ere badirela kontuan hartuta, jakina. Guraso eta hezitzaile gisa mugak jartzea ere bada-gokigulako. Txikienei buruz hitz egiten ari naizenean oso primarioak diren beharrei buruz ari naiz, ia genetikoak diren beharrei buruz: jabetzea, adibidez, ume horrek lo egiteko edota jateko beharra duela eta ez duela lo egingo edo ez duela jango guk emandako patroien arabera baizik eta bere beharren arabera. Behar dutenari buruz ematen diguten informazioari adi egotea da. Umeak gurasoekin eta beste helduekin nolako harremana duen begiratu behar dugu eta kontuan hartu behar dugu harremanei eta afektibotasunari dagozkion desioak dituela.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu hel-





Subjektu gisa hartu ez duten pertsona batek subjektu gisa hartu al ditzake bere seme-alabak edo ikasleak? Horretarako ahalegina egin beharko du eta norbaiten laguntza beharko du

duek ere –gurasoek zein hezitzaileek– euren istorio propioa dutela eta haiek subjektu gisa edo objektu gisa hartu ote dituzten ere begiratu behar da. Zeren subjektu gisa hartu ez duten pertsona batek subjektu gisa hartu al ditzake bere seme-alabak edo ikasleak? Horretarako ahalegina egin beharko du eta norbaiten laguntza beharko du. Era berean, oso garrantzitsua da ume txikiekin lanean ari diren pertsonen prestakuntza egokia izatea.

Ez da gauza bera etxea edo eskola. Etxean pertsona gutxiago egoteak, ume gutxiago izateak lagundu dezake arreta horri behar duen lekua eskaintzen, baina ikasgelan ume asko elkartzen dira... Eskola gai al da umeak subjektu gisa hartzeko?

Sei urterekin umeek egokitze gaitasun handiagoa izaten dute, baina adin horretatik behera, eskolan halako talde handiak irakasle bakarrarekin edo birekin egonda, oso zaila da umei behar duten arreta eskaintzea eta subjektu emaile gisa hartzea.

Eskolan zaila da, beraz, umea subjektu emaile gisa hartzea, beste gauza batzuen artean ratioek, adibidez, ez dutelako horretarako aukerarik uzten. Baina zer aldaketa ekarriko luke eskolara umea subjektu emaile gisa hartzeak?

Eskolak utzi beharko luke umeak deskubritu dezala zer gauza gustatzen zaizkion besteekin harremanetan jartzeko orduan. Posizioaren alderantzizkatzea da: hezitzaileak ez du edukirik ematen eta umei besteekin harremanetan jartzeko zer gustatuko litzaiokeen deskubritzen laguntzen dio. Etxean, berriz, gurasoek deskubritu beharko lukete zer modu duen ume horrek, nahiz eta oso txikia izan, haiekin harremanetan jartzeko, zer gustatzen zaion, zer ez... Ume horrek



eman dezakeena begiratzea da. Eskolak eta familiak horren gaineko hausnarketa egin beharko lukete. Zeren zenbat guraso jabetzen dira euren seme-alaba subjektu emailea izan daitekeela? Gurasoek umea zaintzeko, hezteko eta elikatzeko zerbait dela uste dute, gehienetan. Eta umea ez da zaindu behar dugun objektua, deskubritu behar dugun subjektua baizik.

Helduak oso adi egon behar du, ezta?

Bai. Zeren ez da metodologia estandarrik jarraitzen, ez da esaten halako momentutan hau lortu behar duela edo bestea egin behar duela. Eta helduak ez du erabakitzen umeak une horretan zer behar duen, pentsatzen duena da zer den eskatzen ari den. Eskatzen ari den horri adi baldin bagaude, zuzenean subjektu gisa hartuko ditugu, desioak dituztelako. Eskatzen ari dena entzuten baldin badugu, adi baldin bagaude, pixkanaka bere desio fisikoak eta aurrerago desio psikikoak zein diren ulertzen joan gaitezke. Eta umea beharrak dituen mendeko izakia izatetik, objektua izatetik alegia, pertsona izatera pasako da. Horrek umeari buruz dugun irudia aldatzen du, guztiz.

Geure buruari umeek behar dutena zer den galdetzeak, haien beharrak kontuan hartzeak harremana aldatzen du, beraz.

Bai. Umeak zer behar ote duen galdetzeak dena aldatzen du, begirada aldatzen du. Umeak zerbait desiratzen duela jakin gabe, kontziente izan gabe, desiratzen dituen gauzak seinalatzen dizkit. Desio inkontziente da, ez baita kontzeptualizaziorik existitzen.

Eta presentzia eskatzen du, begirada kontziente.

Bai. Arreta eskatzen du. Ez da beharrezkoa 24 orduz izatea, baina heldua umearekin dagoenean, egon egin behar du.



Eskatzen ari dena
entzuten baldin
badugu, adi baldin
bagaude, pixkanaka
bere desio fisikoak eta
aurrerago desio
psikikoak zein diren
ulertzen joan gaitezke





Galdera laburrak

01.

Eskola garaiko oroitzapen on bat?

Etxeko lanak ikasgelan, ezkutuka eta talde txikietan egiten genituenekoa.

02.

Eskola garaiko oroitzapen txar bat?

Gutxi ikasi eta nota txarra ateratzen nuenekoa.

03.

Nolako eskola amesten duzu?

Ez dakit zer erantzun.

04.

Zuretzat garrantzitsua den balore bat?

Zintzotasuna eta laguntasuna.

05.

Hezkuntzari buruzko film bat edo liburu bat?

Bruno Bettelheim-en *Psicoanálisis de los cuentos de hadas* liburua, emozioak deskubritzearen edertasunarengatik eta plazerarengatik, haiek ematen baitiote zentzua bizitzari.



Esperientzia

Ospitaletik, sare sozialen prebentzioa

32

Baionako ospitaleko nerabeen prebentzio zerbitzuaren ekimenez, Resolab sare soziala sortu dute Antic Pays Basque elkarteak eta Naos Clusterrak. Instagramen moduko argazki galeria bat da, software librean garatua eta bitartekari profesionalek gidatua.





» Gilles Ribak aurkeztu zuen Resolab Euskarabildua jardunaldietan, Emmanuel Arrechearekin eta Jean-Christophe Elineaurekin batera. ARG: Dani Blanco / EUSKARABILDUA

Baionako ospitaleak abiatu dute ekimena: Resolab sare soziala sortu dute nerabeentzat eta gazteentzat, modu seguruan eta profesionalak bitartekaritza lana eginaz, gazteak Interneten gaitzeko eta arriskuen prebentzioan jarduteko helburuarekin. Ospitaleak arta zerbitzuarekin eta langileen prestakuntza alorrarekin batera, nerabeen eta gazteen prebentzio zerbitzua dauka, eta funtsezko jo du alor horrek arlo digitala lantzea: "Ospitalean arlo digitaletik eratorritako arazo asko ikusten ditugu, eta beharrezko ikusi dugu prebentzio ekintza batzuk antolatzea. Gazteen % 80 ongi daude, baina *Tik Tok*, *Instagram* eta antzeko sare sozialetatik eratorritako arazo asko ikusten ditugu, eta kodeak aldatzeko nahia izan dugu". Gilles Riba Baionako ospitaleko prebentzio ar-

duradunak aurkeztu zuen Resolab sare soziala Euskarabildua jardunaldietan, Antic Pays Basque elkarteko Emmanuel Arrechearekin eta Naos Clusterreko Jean-Christophe Elineaurekin batera. Elkartea eta clusterra arduratu dira nerabeen arrisku jokaerak prebenitu asmo dituen sare soziala software librean garatzeaz.

Baionako Ospitaleak hamar urte daramatza arlo digitala lantzen, Gilles Riba ospitaleko prebentzio arduradunak azaldu zuenez. Prebentzio zerbitzuak 11 eta 21 urteko nerabeei eta gazteei eskaintzen die zerbitzua. "Ohartu gara 11 urte jadanik beranduegi zela Interneteko sare sozialen arrisku-jokabideetan prebentzioa egiteko, eta erabaki dugu haurrengana joatea, Lehen Hezkuntzara, 8-9 urtetik goiti. Konturatu gara Frantziako Estatuan haurrak gero eta goi-



zago daudela pantailen aurrean; batez beste, 7 urterekin daukate lehen tableta eta 9 eta erdi eta 10 urterekin lehen smartphone-a, eta Interneten eta sare sozialetan hasten direlarik, ez daukate helduen laguntzarik, ez irakasleen begiradarik ezta gurasoen laguntzarik ere. Hai horretan helduen bidelaguntzarik ez edukitzea arazo bat da". Horrexegatik, Resolab sare sozialak bitartekari eta moderatzaile profesionalak dauzka atzean, gazteen arteko esku-hartzeak errespetuzkoak direla ziurtatzeko, eta hala ez direnean neurriak hartzeko.

Antic Pays Basque elkarteak eta Naos Clusterrak HumHub plataforma alemaniarrean oinarrituta gauzatu dute sare soziala, software librean. "Eskola-kanpoko eremutik, aire hartzeko eremuan esperimentazio asko egiten dituzte haurrek, gizartean bizitzen ikasten dute, arauak ikasten dituzte... eta hor eragitea erabaki dugu, sare sozialen eskema berreraiki dugu soziabilitatea esperimentatzeko". Ribak azaldu zuenez, proiektuaren helburua esperimentazioaren bitartez erabilerari eta arriskuei

buruzko prestaketa egitea izan da; "gazteei sareetan euren gaitasun digitalak hobetzen, autonomia lantzen eta arriskuez jabetzen lagundu diegu".

Instagram argazkien bidezko sare sozialaren antzeko egitura du Resolab guneak. Instagramen bezala, argazkiak eskegi, *story*-ak jarri, iruzkinak egin eta argitalpenak maitatu daitezke. Taldean edo buruz buru hitz egiteko txata ere eskaintzen du plataformak. Bereizitasun bat du, ordea: segurtasuna. "Ingurunea birsortu dugunean klaseak sortu ditugu, eta proiektuan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak bere eremua dauka, baina eremu horiek hermetikoak dira. Hau da, gela bateko haur batek ezin du beste klase bateko haur batekin hitz egin. Denek ezin dute plataforman izena eman. Administrariak erabakitzen du hurrei baimena eman ala ez, eta administratzaileak erabakitzen du haur bakoitzari zein ikasgela esleitzen dion, baimenen eta erabakitako arauen arabera". Horrez gain, plataformak kontagailu bat dauka, erabiltzaile bakoitza sare sozialean zenbat denbora pasatzen duen ohartu dadin".

Sare sozialean eskegitako argitalpenak salatzei aukera ere badago, erabiltzaileek desegokitzen jotzen dutenean, eta hori sare sozialean hezteko eta arriskuak prebenitzeko funtsezkotzat jotzen dute plataformaren garatzaileek. "Dena salatu daiteke, baita ere, klik bakarraren bidez, eta kasu horretan argitalpena segituan ezabatzen da, moderatzaileak berriz baimena eman arte. Profesionalak argitalpena eskegi duenarekin hitz egin dezake eta baita argitalpen hori salatu duenarekin ere, egiazko bitartekaritza egiten baitu profesionalak, ez da Metan bezala, algoritmoekin egiten". Probak ere egiten dituzte, nerabeen eta gazteen gaitasun digitalak indartzeko: "Salagarriak diren argitalpenak eskegi izan ditugu eta ea ikasleek salatzen duten ala ez probatu dugu. Adibidez, euren datu pertso-



**Jazarpen egoera batzuk
salatuak izan dira. Ikusi dugu
beste sare sozialen moduan
erabiltzen dutela ikasleek**

**Gilles Riba, Baionako ospitaleko
prebentzio arduraduna**



» Antic Pays Basque elkarteko Arrechea hizketan Euskarabildua jardunaldietan. ARG: Dani Blanco / EUSKARABILDUA

nalak eskatzen dituzten argitalpenak egin izan ditugu eta ikusi dugu baietz, onargarriak ez diren argitalpenak salatu dituztela”. Ribak adierazi zuenez, salaketa garrantzitsuak egin izan dituzte nerabeek sare sozialeko txataren bidez: “Bullying eta jazarpen egoera batzuk salatuak izan dira. Ikusi dugu ikasleek beste sare sozialen moduan erabiltzen dutela, abantaila batekin: profesionalek moderatzen dutenez, nahiko laster esku hartzen dela eta gertatu dena gazteekin zuzenean aipatzen dela. Irakasleek sare sozialean gertatzen diren jazarpen egoeren berri badaukate, eta haiek gurasoei azal diezaiekete, eta esku hartu. Jazarpen kasuetan badakigu esku hartzeko eta arazoa tratatzeko denbora zaintzea funtsezkoa dela; badakigu 15 egun bitartean tratatzen

baldin badugu egoerak konpondu daitezkeela eta oso ondorio gutxi izaten direla, eta hori funtsezkoa da. Denbora asko irabazi ahal izan dugu eta oso eraginkorra izan da”.

Hurrena, euskaraz

Bi urte dira Resolab sortu denetik. Momen-tuan, Lapurdiko Lehen Hezkuntzako lau eskola eta 250 erabiltzaile inguru dituzte. Esperim-entazioarekin segitzea erabaki dute, eta diru-laguntza bati esker, proiektua zabalduko dute: “Hegoaldean, Lituania eta Belgikan ere landu ahal izango da aurrerantzean Resolab eta euskarazko itzulpena ere izango du, beste hizkuntzetan itzulia izan da, baina oraino euskarara ez”.



Psikogenesiari buruzko liburuxka berria

Ekarpena

Umearen ikasketa-prozesuaz hitz egiten du psikogenesiak. Eta idazketa-sistemaren ikasketa-prozesuari buruzko monografikoa argitaratu berri du **Hik Hasik**, Elena Laiz Sasiain irakaslearen eskutik.





Umeek idazten eta irakurtzen euren kabuz ikasten dutela esateak zalantza sor diezaioke norbaiti, baina denborak eta esperientziak hala dela frogatu dute: euren erritmoak errespetatuz gero, eta haiengan konfiantza izanez gero, giro alfabetatua bizi diren umeak gai direla euren kabuz ikasteko. Myriam Nemirovskyk, Ana Teberoskyk eta Emilia Ferreirok egin dituzten ikerketek zientifikoki erakutsi dute giro alfabetatu batean bizi diren haur guztiek idazten eta irakurtzen ikasteko hainbat fase igarotzen dituztela. Umearen ikasketa-prozesuaz hitz egiten du, beraz, psikogenesiak eta garbi adierazi du Elena Laizek lan honetan: “Psikogenesia ez da irakasleok nola irakatsi behar dugun, baizik eta umeek nola ikasten duten, nola jabetzen diren idazketa sistemaren funtzionamenduz”.

Ikasteko, ikerketa-prozesua egiten du umeak eta berak erakutsiko digu zein hipotesi dituen, zein momentutan dagoen, eta irakasleen laguntzarekin eta babesarekin berak eraikiko du bere ikasketa. Kodea ikasi baino lehen ere, umeak idatzi dezake eta marrazkiak eta testu idatzia bereizten dituen unean bertan hasiko da idazketa-sistemaren ikasketa-prozesuan barneratzen. Irakurtzen eta idazten ikastea kodeaz jabetzea baino gehiago baita.

Idazketa-sistemaren ikasketa-prozesuari heldu dio Elena Laiz irakasleak lan honetan. Laiz urte luzez aritu da haurren idazketaren eta irakurketaren ikasketa-prozesuak ikertzen eta irakasleei horren gaineko prestakuntza eskaintzen, eta eguneroko praktikan ikusitakoarekin eta ikasitakoarekin ondu du lan hau. Bi zati ditu monografikoak: lehena, Laizen lanak hartzen du. Bigarren zatia, hamaika irakaslek eta Laizek berak mahaiaren bueltan trukaturako esperientziak jasotzen ditu.

hikhasitarrek etxean jasoko dute. Gainerakoan, ohiko lekuetan eta www.hikhasi.eus atarian eskura daiteke.



Zer da artea?

38

Ekarpena

Artista eta irakaslea da Pau Figueres, eta Nola azaldu nerabeei Coca-Cola kaxa bat artea izan daitekeela izeneko lana aurkeztu zuen, Master Amaierako Lanean. Nerabeei arte garaikidea ezagutaraztea du helburu.





Pau Figueres Ortiz

Artista eta irakaslea

Zer da artea? Artistaren bat burura etortzen ote zaigun galdetzen badigute, Vincent van Gogh, Frida Kahlo edo Pablo Picasso bururatuko zaizkigu, agian, eta arte figuratiboaren aurrean erosoago sentitu ohi gara, irudiak identifikatzen ditugulako. Baina ulertzen al ditugu? Eta ezagutzen al dugu gaur egungo artea? Ba al dakigu zer den arte garaikidea? Ulertzen al dugu? Ezezkoa izango da gehienon erantzuna, eta, erantzun hori baiezeko bihurtu nahian, arte garaikidea nerabeei gerturatzeko saiakera egiten ari da Pau Figueres artista. Irakasle izateko masterra amaituta, *Nola azaldu nerabeei Coca-Cola kaxa bat artea izan daitekeela* izeneko lana aurkeztu zuen. Coca-Cola kaxa metafora bat zen, kasu horretan, ikusizko kultura ordezkatu nahi zuen metafora.

Praktikaldian ere, horixe izan zuen helburu: harremanetan jartzea ikasleak eta arte garaikidea. Ikasleentzat, oso ezagunak dira markak, eta horiek erabili zituen haiengana gerturatzeko; gaztetxoak harrituta gelditzen ziren, hainbat materialekin lan egin

daitekeela ikustean. “Gustuko dituzten eta ezagutzen dituzten gauzekin lan egin daitekeela ikusi zuten, eta askoz erakargarriagoa izan daitekeela modu horretan lan egitea. Master Amaierako Lanarekin, helburua hau nuen: gertu dituzten materialak lan egiteko erabilgarriak direla ikustea, eta, aldi berean, horrekin arte garaikidera hurbiltzea”, dio Figueresek.

Figueresek berak ere markak erabiltzen ditu artea egiteko: “Markak edonork ezagutzen ditu, eta ikuslearekin lehen harreman hori lortzea errazagoa da, ezagutzen duen elementuren bat ikusten duenean. Artelan horren atzean, alderdi gehiago ezkututzen dira, jakina, eta pertsona horrek, gero, hausnarketa egingo du, edo ez; baina emana dago lehen pausoa. Horregatik iruditzen zait interesgarria gure ikusizko kulturako materialak erabiltzea artea sortzeko. Eta eskolan ere, gauza bera”.

Oso ezagunak diren marken logoak erabiltzen ditu Figueresek bere artelanetan: urdaiazpiko hanka bati *Nike* markako



eskumuturrekoa jarri dio, adibidez. Markek egiten duten kontaketa apurtu nahi du, era berezi horretan: “Haien irudia erabiltzen dut, baina irudi hori apurtzen saiatuz, nolabait”.

Hiperkontsumismoa *remixatzen*

Praktikaldian ikasleekin egindako lanak erakusgai izan ditu Figueresek Donostian, EHUren Carlos Santamaria zentroan, *Hiperkontsumismoa remixatzen* izeneko erakusketan. Errealitatea ikasgelara eta ikasgela errealitatera eramatea izan du beti buruan, eta horretarako aukera eman zion erakusketari horrek.

Donostiako Mundaiz ikastetxeko DBHko 1., 2. eta 3. mailetako ikasleekin egindako lana izan da ikusgai erakusketa horretan. Eta baita Figueresek osatutako lana ere: “Nerabeak eta arte garaikidea nola gerturatu daitezkeen galdetu nion neure buruari, eta pentsatu nuen hiperkontsumismoaren mundua ikusizko kulturaren bidez gerturatzea errazagoa izango zela, beste bideren bat erabiltza baino, haiek ezagutzen dituzten irudiak direlako. Proposamena mailaka

antolatu nuen. Lehenengo mailan, lana errazagoa izan zen, eta hausnarketa ez zen horren sakona izan, markak eta irudi horiek apaingarri gisa erabiltzea baino ez. Bigarren mailan, horixe bera planteatu nuen, baina hiru dimentsiotan. Eta hirugarren mailan, hiperkontsumismoaren gaineko hausnarketa sakonagoa sustatu nuen, eta diziplinarteko ariketa gisa planteatu: euskara –lexikoa lantzen genuelako–, literatura –ironia eta metaforak lantzen genituelako– eta artea bera, jakina. Gaia hiperkontsumismoa izanik, gizarte zientziak ere ukitu genituen”.

Ironia lantzen du Figueresek, artelanak sortzeko orduan. Eta halaxe egiten du ikasleekin ere: “Literaturatik hartutako baliabide erretorikoak lantzen ditugu: metafora, ironia eta oximorona, batez ere. Horixe planteatu nien ikasleei ere. Ironiak indar handia du hiperkontsumismoaren gaineko lana egiteko. Nik marken irudiak erabiltzen ditut, baina ez nator bat haiek egiten duten kontaktarekin; horren kontra agertzen naiz. Uste dut kritika egiteko tresna indartsua dela ironia; ulertzen baldin bada, jakina. Gure erronka hauxe baita: uler dadila, azalpenik eman gabe”.



» Donostiako Mundaiz ikastetxeko ikasleek egindako lanak.





Donostiako Mundaiz ikastetxeko ikasleek egindako lanak.



Gizarteak, oro har, ez du arte garaikidea batere ezagutzen. Nik uste dut lan egin daitekeela eskolan, arte garaikideari buruzko kontzeptuak azaltzeko eta zabaltzeko, eta horretan ari naiz

Eta ikasleen lan batzuetan, argi eta garbi ikusten da ironia hori, artistaren esanetan: "Coca-Colan agertzen diren hartz zuriak ageri dira horietako lan batean, eta berotze globalari buruz ari dira. Nik ez dakit haiek hori lortu nahi zuten ala ez, baina, irudia ikusita, badirudi hartzak, berotze globala kontuan hartu gabe, pozik ari direla Cola-Cola edaten, euren ekosistema nola desagertzen den ikusten duten bitartean. DBHko 3. mailan hori lortzea oso handia izan zen niretzat. Ez dakit haiek helburu hori zuten edo ez, baina oso irudi indartsua lortu zuten".

Arte garaikidea, ezezaguna gehienontzat

Arte garaikidea ez dugu ezagutzen, eta, kasu askotan, ulertu ere ez dugu egiten. Horregatik iruditzen zaio horren garrantzitsua Figueresi hura hezkuntza mundura gerturatzea: "Musika entzuten dugunean, ez ditugu soilik Mozart edo Beethoven entzuten; musika garaikidea ere entzuten dugu. Baina, ikasleei zer artista ezagutzen dituzten galdetzen diedanean, da Vinci edo



Picasso aipatzen dituzte. Gizarteak, oro har, ez du arte garaikidea batere ezagutzen. Nik uste dut lan egin daitekeela eskolan, arte garaikideari buruzko kontzeptuak azaltzeko eta zabaltzeko, eta horretan ari naiz”.

Arte garaikideak azalpen bat behar izaten du, eta, normalean, ez dugu tresnarik izaten parean dugun lana interpretatzeko: “Arte

garaikideak ez du zertan polita izan; edozer gauza izan daiteke arte garaikidea: kontzeptu bat, ideia bat... nahi duzuna. Hori bai, helburu artistiko bat eta hausnarketa bat izan behar ditu atzean. Hausnarketa hori ezagutzen ez badugu, ordea, hor gelditzen gara. Nire lana lehen aldiz ikusten dutenei esaten diet begirada bat botatzeko eta zer ikusten duten esateko. Horren ondoren,



» Pau Figueresen *The right pig* artelana.

nire azalpena jasotzen dute. Baina artistok ez dugu zertan dena azaldu. Poesiarekin bezala gertatzen da: olerki bat irakurtzen dugunean, uler dezakegu, edo ez; baina gure interpretazioa egin dezakegu, eta ez dugu zertan bat egin artistak esan nahi zuen horrekin. Asmoa da norberak lan horrekin harreman bat sortzea". Arte garaikidea ezagutzen ez badugu, ezinezkoa da artelan bat ikusten dugunean harekin harreman bat sortzea, ez baitakigu nola begiratu behar diogun ere".

"XX. mendeko arte guztia gaur egungoaren oinarria da, baina ez dugu sekula ikasi. 70 urtez gertatu dena galdu dugu, eta hori oso garrantzitsua da egun gertatzen dena interpretatzeko; ezin da arte garaikidea ulertu, haren oinarriak aurrez ezagutu gabe", jarraitu du Figueresek. "Nire helburua jendeari artea helaraztea izan da, beti. Nik beti entzun dut artea denontzat dela, baina jendeak ez du arte garaikidea ulertzen. Garrantzitsua da umeei eta gazteei arte garaikidea zer den azaltzea, gerora begien aurrean dutena uler dezaten. Ahaztuak geratu diren 100 urte horietan zer gertatu den jakin behar dugu, gaurko artearen oinarria hor kokatzen delako".

"Txikitan artea eskulan gisa landu nuen soilik, eta inork ez zidan esan zer den gaur egungo artea. Institutuan Arte irakasgaia eman nuenean, historiaurretik hasi ginen, eta inpresionismoan gelditu ginen. Interesgarria da, eta hori ere jakin behar da; baina non geratzen da gaur egungoa? Zergatik ez da ematen arte garaikidea, historia garaikidea ematen den moduan? Ulergaitza da", azpimarratu du Figueresek.

Badu interesik eskolan ere

Arteak gizartean interes txikia pizten duela uste du Figueresek, eta horrek isla duela es-



Institutuan Arte irakasgaia eman nuenean, historiaurretik hasi ginen, eta inpresionismoan gelditu gien. Interesgarria da, eta hori ere jakin behar da; baina non geratzen da gaur egungoa? Zergatik ez da ematen arte garaikidea, historia garaikidea ematen den moduan?

kolan ere: "Nik uste dut artea ematen dela curriculumak hala esaten duelako; baina ez zaio behar adinako garrantzirik ematen. Hala ere, badira arteari merezi duen garrantzia ematen dioten ikastetxeak, eta neu ere eskola orduetan hori bermatzen saiatzen naiz". Donostian, Intxaurren auzoko salestarren ikastetxean ematen ditu eskolak aurtan, DBHn. Plastika ikasgaiaren barnean ematen du artea. Baina artea edozein ikasgaitan landu daitekeela uste du: "Zientzia, Matematika... artearen bidez, edozein ikasgai landu daiteke, baina, ezagutzen ez dugunez, baztertu egiten dugu".

Remix moduko bat egiten du Figueresek bere artelanak sortzeko, hau da, beste nor-



» Pau Figueresek *Hiperkontsumismoa remixatzen* erakusketarako egindako lana.

baitek ekoitzitako irudiekin edo materialekin egiten du lan: “DJek egiten duten moduan, zatiak hartu, eta horiek nahasten ditut nire lanak sortzeko. Ikasgelan ere, hori erakusten saiatzen naiz. Orain migrazioak lantzen ari gara. Donostiako salestarren ikastetxean proiektuetan oinarrituta egiten dugu lan, eta musika, artea, giza zientziak eta ingelesa proiektu berean txertatuta ditugu”.

Figueresek berak egindako artelanak material pedagogiko gisa erabili izan ditu, eta ikasleei oso interesgarria iruditu izan zaie hori, jada ez baitute soilik irakaslea ezagutzen; artista ere ezagutzen dute, eta horrek artera gerturatzeko erraztasuna ematen die. Arteak ikasleen kritikotasuna lantzeko aukera ematen du, eta helburua da irakurketa kritikoa egin dezatela. Filosofiarekin ere

lotura handia du arteak, Figueresen hitzetan: “Ez da soilik esaten dena, baizik eta horren atzean ezkututzen diren ideiak. Ideia horiek oso garrantzitsuak dira. Erakusketan ikusten denak kutsu formala du, eta diseinua eta markak ateratzen dira; baina, horren azpian, literatura filosofikoa eta hausnarke-ta sakona daude”.


Kritikotasuna bultzatzen du arteak, eta aldarrikapenak edota salaketak egiten ditu. Artea tresna bat da, azken batean. “Artearen helburua ez da hainbeste aldatu. Hasieran, kristautasuna zabaltzeko tresna gisa erabili zuten, baina, gaur egun, ez da tresna gisa ulertzen. Artistok gure inguruan gertatzen ari diren gauzak azaldu, eta horien gaineko galderak sortzen ditugu”, esan du Figueresek amaitzeko.

hik hasi

Hezkuntza
eraldatzeko

**Izan zaitez
HikHasitarra!**

www.hikhasi.eus





Ahalduntze eskola

Antzerkia, balioak barneratzeko

46

Balioak lantzeak bi isuri ditu Apropoxek bideratzen dituen saioetan: gidioen bidez lantzen dira —dituzten ezaugarriak medio—, eta, era berean, antzerkigintzaren filosofia barneratuz ere lantzen dituzte ikasleek. Helburua ez da antzezlan bera, bidean egiten duten lanketa baizik.



Iurgi Etxebarria
Irakaslea eta Apropox egitasmoaren bideratzailea





Debagoieneko hainbat ikastetxetan lantzen dute antzerkia Apropox egitasmoaren eskutik. Bi programa dituzte antzerkia lantzeko: *Baliatu* izenekoak, DBHrako, eta *lufala!!* izenekoak, LHko 5. eta 6. mailetarako. Horrez gain, irakasleei ere ikastaroak eskaintzen dizkiete. Eskola orduetan lantzen dute antzerkia, eta ikasle guztiek hartzen dute parte. Gustura aritzen dira denak, lurgi Etxebarrira irakasleak, Apropox egitasmoaren bideratzaileak, dioenez.

Baliatu eta lufala!! izeneko programak lantzen dituzue ikasleekin. Nola antolatzen dituzue saioak?

Baliatu programa DBHn lantzen dugu. 15 orduko egitaraua du, eta antzerkiaren filosofia lantzen dugu programa horretan, antzerkia bera baino gehiago. Bi urtez egiten da: lehen urtean, garapen pertsonala lantzen dugu, eta, bigarren urtean, antzezlan bat sortzen dugu. Adin horretan, hainbat gauza utzi behar izaten dituzte atzean, eta horrek sortzen duen dolua lantzen dugu. Atzean utzi behar dituzten gauzak zerrendatzen dituzte: adibidez, inozentzia. Kasu horretan, inozentzia handiko eszena bat prestatzeko proposamena egiten diet. Etxean dauden arazoak ere zerrendatu ditzakete: gurasoen banaketa, etxeko zereginen antolaketa... Hurrengo saioan, eszena horiek antzeztzen ditugu, eta, antzerkiaren bidez, arazo horiek despertsonalizatu eta normalizatu egiten dituzte.

lufala!! Lehen Hezkuntzan lantzen
duzue, 5. eta 6. mailetan. Hamar
urteko ibilbidea egin duzue dagoe-
neko.

Bai, eta asko aldatu da urteotan.

pixkana zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ikusi baitut. Ikusi nuen, adibidez, antzezlanak protagonistekin egiteak ez zuela zentzurik, gainerako ikasleen parte-hartzea murriztu egiten delako. Denek hartzen dutenean parte, demokrazia ezartzen da, denen ideiak agertzen dira. 20 orduko egitaraua da, baina, berez, ikasturte osoa beharko luke. Antzerkia lantzen dugu batez ere, eta ez dugu balioetan hain-beste sakontzen; baina balio batzuk lantzen ditugu: irudimena, konfiantza, orain eta hemen egotea, zabaltzea... Izan ere, agertokira ateratzen garenean, batzuek gure burua ezkutatzeko joera daukagu; beste batzuek publikoari bizkarra ematen diote... baina beharrezkoa da publikoarengana zabaltzea. Ariketak prestatzen hasten garenean, agerian geratzen dira ikasleek erabat barneratuta dituzten rolak: adibidez, konturatzen gara batzuek besteen aurrean jartzeko joera dutela, eta beste batzuk





gainerako ikasleen atzean ezkutatzen direla.

Gizarte eraldatzailea bultzatu nahi duzue antzerkiaren bidez.

Hori da. Eta balio hauek guztiak landuz bultzatu nahi dugu: enpatia, estimua, gertutasuna, akatsik gabeko eremua, erresilientzia... Errua, arrazoia eta akatsa oso barneratuta ditugu, eta talka egitera garamatzate etengabe.

Zergatik da hain garrantzitsua eskoletan antzerkia lantzea?

Ikasle bakoitzaren idiosinkrasia argi agertzen delako, adibidez. Heziketa fisikoan ere agertuko dira gauza horiek, baina kirolak lehia bultzatzen du maiz, baina antzerkian, ez dago lehiarik. Antzerkian, beti irabazten da; ez dago akatsik, eta, irudimena lantzen dugun heinean eta inor mintzen ez dugun heinean, denak balio du. Antzerkigintza akatsik gabeko eremua da, eta talde osoaren konfiantza eskatzen du. Hori bizipen gisa lantzen dute ikasleek. Izan ere, helburua ez da antzezlan bera, baizik eta balioak barneratzea.

Ondoren, jarraipenik izaten al du egitasmoak ikastetxeetan?

Batzuetan bai. Antzerkietatik zenbait gai hartu dituzte, gero ikasgelan lantzeko. Gatazkaren bat baldin badago, antzezpenaren bidez landu daiteke.

Curriculumean, ordea, ez du tokirik antzerkiak.

Gure saioak curriculumeko orduetan txertatzen dira, eta tutorea hantxe egoten da, saioaz gozatzen. Baina zoritxarrez, curriculumaz kanpoko proiektua da. Horixe da gure ametsa: antzerkigintza curriculumaren barnean sartzea. Saioek arrakasta handia dute, eta jabetzen gara oso baliagarria dela gai maitatsuak lantzeko eta irakaspen paregabeak bizitzeko.



Sinboloen bidezko lana

Sinboloen bidez egiten dute lan Apropox egitasmoko kideek. Eta irudimenaren sinboloa, adibidez, haria da, lurgi Etxebarriak azaldu duenez: "Guztiok inguratzeko, hari bat erabiltzen dugu eta, hari horrek irudimena sinbolizatzen du. Hari luzea da, ez baitakigu irudimenaren muga non dagoen, eta irudimenak ez gaitu nekatzen. Entseatzen ari garenean baten bat iskanbila sortzen hasten bada, haria apurtzen ari dela esaten diogu". Hori izaten da egiten duten ariketetako bat. Beste ariketa batean, ikasleek testua buru gainean eraman behar izaten dute, ibilbide bat egiten duten bitartean: "Norbaiti testua lurrera erortzen bazaio, geldirik egon behar du, eta, ondoren, ikaskideek laguntzen diote hura jasotzen. Testua erortzen bada, beraz, ardura guztiona da". Halako ariketen bitartez elkarlana zeinen garrantzitsua den barneratzen dute ikasleek.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots



ipuina + diskoa

Olatuek botila ekarri dute Txapasentzat
itsasoaren beste aldetik... Zer ote du barruan?
Jantzi sudur gorria eta zatoz gurekin Txapasen kaxa
magikoak gordetzen dituen sekretuak ezagutzera...
Dzzzit!!!

www.katxiporreta.eus



Katxiporreta
KOOPERATIBA

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 368 404




Chillidaren urtea

50

Proposamena

Eduardo Chillidaren jaiotzaren mendeurrena izango da 2024ko urtarrilaren 10ean. Ikasleei artistaren obra eta pentsamendua ezagutarazteko webgune bat, erakusketa berezi bat, hezkuntza gidak eta unitate didaktikoak ari dira prestatzen artistaren ondorengoak.





Eduardo Chillida gogoratzeko urte bikaina izango da 2024a”, azaldu dio **Hik Hasiri** Chillida Lekuko hezkuntza arduradun Nausica Sanchezek. “Haren jaiotzaren mendeurrenean, ekitaldi ugari egingo dira, eta ardatz nagusietako bat hezkuntza izango da”.

Museoa. “Chillidaren lana eta pentsamendua ezagutzeko aukerarik politena Chillida Leku bisitatzea izango da, noski”, Sanchezek esan duenez. Bisita dinamizatuak egiten dituzte ikasleekin. Haurrekin egiten dituzten bisitetan, jolasak eta zentzumenak baliatzen dituzte Chillidaren obra ezagutzeko. Chillidak arteaz

Eduardo Chillida, duela ehun urte jaioa

1924ko urtarrilaren 14an jaio zen Eduardo Chillida, Donostian. Arkitektura ikasteko, Madrilera joan zen, eta, azkenean, eskulturari eta grabatuei buruzko ikasketak egin zituen Arte Ederren Zirkuluan. Realeko atezaina izan zen, eta artea ikusten zuen han ere: atean espazioak eta denborak nola egiten zuten bat ulertu zuen. Futbola uztera behartu zuen lesio batek, eta 1948tik aurrera, arteari lotu zitzaion buru-belarri, Parisen. Burdinarekin eta altzairuarekin egin zuen lan batik bat, eta 1954an jarri zuen bere lehendabiziko bakarkako erakusketa. Espazioa izan zuen kezka handietako bat. 1976an, Haizearen orrazia eskultura burutu zuen, urteen joanean haren obra enblematiko bihurtu zena. Naturaren eta hiriaren arteko elkarrizketa gisa planteatu zuen Haizearen orrazia. 80ko hamarkadatik aurrera, mundu osoan egin zituen erakusketak, eta nazioarteko hainbat sari jaso zituen. Chillida Leku museoaren eraikuntzan murgildu zen bere azken etapan. Hernaniko Zabalaga baserrian, naturarekin harremanetan berriro, aire zabalean kokatu zituen artelanak. 78 urterekin hil zen, 2002ko abuztuaren 19an.

eta hezkuntzaz zeukan filosofian oinarritzen dira ikastetxeei eskaintzen dizkieten bisitak: “Artea ikas daiteke baina ezin da irakatsi, esaten zuen Chillidak, eta, haren filosofiari



jarraituz, behaketa, esperimentazioa, gogoeta eta ekintza sustatzen dituzten metodologiak erabiltzen ditugu ikastetxeekin". Nerabeekin eta gazteekin, elkarrizketak baliatzen dituzte museoko hezitzaileek. "Chillidaren lana oso erraz lot daiteke hezkuntza curriculumeko hainbat gairekin: arteaz gain, musika, filosofia, zientzia eta poesia landu daitezke, bai eta natura eta giza eskubideak ere".

Erakusketa berezia. Chillidaren mendeurrena ospatzeko, erakusketa berezi bat zabalduko du Chillida Lekuk abenduan, Maeght unibertsoa izenekoa. Donostiar artistak gaztetatik izan zen Aime Maeghten galeriako kide, eta urterik emankorrenen testuingurua ulertzen lagunduko du erakusketa berriak. Honako artista hauen artelanak izango dira ikusgai museoan: Georges Braque, Alexander Calder, Alberto Giacometti, Pablo Palazuelo, Julio González, Jean Arp, Barbara Hepworth, Antoni Tàpies, Joan Miró eta Marc Chagall. "Gutxitan izaten dugu maila horretako artisten lanak ikusteko aukera Euskal Herrian; beraz, aukera paregabea izango da", adierazi du Sanchezek.



Webgunea. Hernaniko museora joan ezin diren ikasleek ere aukera ugari izango dituzte Chillidaren lana ezagutzeko. Chillida-Belzunce fundazioak mendeurrenari eskainitako webgune bat sortu du (www.eduardochillida.com), eta han jasotzen dira, besteak beste, artistaren biografia zehatza eta obra guztiak. "Webguneak mapa interaktibo bat dauka, eta Chillidaren eskultura publikoak non dauden ikus daiteke".

Gida eta unitate didaktikoak. Irakasleentzako hezkuntza gida ere prestatu du Chillida Leku museoak, eta eduki horiek eskuratu nahi dituenak museoarekin jarri behar du harremanetan. Horrez gain, unitate didaktikoak prestatzen ari da museoa, "Chillidaren obran eta pentsamenduan sakontzeko interesa duten ikastetxeentzat, irakasleentzat eta hezitzaileentzat". Hezkuntza arduradunak adierazi duenez, dokumentu horiek erreferentziazkoak izango dira: "Chillidaren obrak gain, haren idatziak, pentsamenduak eta hausnarketak sakon ezagutzeko aukera emango diete irakasleei eta ikasleei". Unitate didaktiko horien bidez, artistak artelanak egiteko erabiltzen zituen tresnak ezagutaraziko dira: "Ez soilik erreminta fisikoak; obrak egiteko baliatzen zituen osagaien berri emango dute. Besteak beste, hutsa eta materia, poesia, marrazketa eta aromak ezagutaraziko dira. Inspirazio iturri izan zituen elementuak ere aipatuko dira, musikan, naturan, filosofian edo zientzian inspiratu baitzen Chillida eskulturrei eta marrazkiei forma emateko".

Herrietako eskulturak. Museoaz, erakusketa bereziaz, irakasleentzako gidaz eta unitate didaktikoez gain, Euskal Herriko hainbat txokotan dauden eskultura publikoak ere "aitzakia aproposak" izango dira mendeurren honetan Chillidarengana gerturatzeko, Sanchezen aburuz. Donostian, Tolosan, Azpeitian, Gernikan, Loian, Bilbon eta Gasteizen daude, besteak beste, Chillidaren hainbat artelan.

MACSONRISAS

HEZIKETA DIGITALA

IKASLEAK, GURASOAK ETA IRAKASLEAK

**HH, LH, DBH, Lanbide Heziketa
eta Batxilergoa**

- Gailu digitalak, bideojolasak, sare sozialak
- Erabilera konzientea, arriskuak, prebentzioa
- Heziketa irizpideak, adinak, denbora
- Gehiegizko erabilera eta adikzioa
- Sare sozialak eta osasun mentala
- Bortizkeria digitala eta ziberjazarpena
- Erlazio digitalak eta kontrol digitala
- Zibersegurtasuna
- Delituak eta ondorioak
- ...



Aurreko ikasturtean ikasleekin **+1500** saio eman genituen
Aurreko ikasturtean helduekin **+120** saio eman genituen

Web orrialdean guraso eta ikastetxeentzako baliabide desberdinak
ditugu, foroa, blog-a eta baita ere hainbat ekimen



@MACSONRISAS2.0



@MACSONRISAS

www.macsonrisas.es



Adur Ramirez de Alda

Jaso ikastolako musika irakaslea

Atzeko atetik

Ikasgeletan ere, kantu bat gara

54

Jar dezagun arreta momentu batez gure ikasgeletan entzuten ditugun kantu eta doinueta.

Udako oporretatik bueltan bolo-bolo entzuten zen pasabidetatik melodia hura. Orain ere, irratan eta Interneteko plataforma guztietan arrakasta izan duen abestia gelaz gela entzuten da "kanon"-a bailitzan.

Kantu bat, abesti bat edo doinu bat, Jon Maiak arrazoiz dioen bezala, norberarentzat istorio, esanahi edota gogoeta bat izan daiteke. Tresna bat izan daiteke, arma bat, ezkutu bat. Irakasgai bat edo irakasle bat. Funtzio bat edota helburu bat izan dezake kantu batek. Edozer izan daiteke, hain zuzen ere.

Ikaste-irakaste prozesuetan helburuak jar-tzen ditugunean, adibidez, ahozkotasanari, euskararen erabilerari edota euskal kultu-raren transmisioari eta jakintzari garrantzia handia ematen diegu irakasleok. Musikak eta kante, adin ezberdinetara bideratutako

haur kante batez ere, helburu horiek lortze bidean pisuzko papera hartzen dutela argia da. Ildo horretatik tira eginez, Imanol Urbie-tak bestelako aspektu pedagogikoen artean musikaren bitartez euskararekiko hurbilpena sustatzeko egin zituen lanak eta proposame-nak aipatu nahiko nituzke.

Gaur-gaurkoz, hurrek *mainstream* musika gustuko dutela eta hamarnaka urte dituzten euskarazko haur kante aspergarriak iruditu ahal zaizkiela pentsatu dezakegu. Irudipen horri buelta ematea dagokigu, kanta horiek transmititzeko modu erakargarriak bilatzeare-kin batera.

Euskal haur kante erreperatorioa handitzeak sekulako aurrerapenak eta abantailak eman dizkigu musika irakasleoi, baita gurasoei ere, baina herri honek dituen euskarazko haur kante eta kantu tradizionalek ereserkiak izaten jarraitzen dute, funtzio pedagogiko interesgarriekin eta oparoekin. Eman diezaie-gun beharrezkoa duten balioa.

TEKNOPOLIS

Zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntzari
buruzko telebista-saioa

etb

Larunbata, 13:30

etb

Igandea, 12:00



Ekoizleak: eitb elhuyar

Babesleak:



Tknika



mn
Mondragón
Unibertsitatea

Departamentu
de Informatika

BRTA
Basque Radio
Television
Audiovisual

Psikogenesia

Idazketa-sistemaren ikasketa-prozesua

Umeek euren
kabuz ikasten
dute idazten eta
irakurtzen

Baieztapen horrek zalantza sortu diezaioke norbaiti, baina denborak eta esperientziak frogatu dute hala dela. Idazketa sistemaren ikasketa prozesuari heldu dio **Elena Laiz** irakasleak lan honetan eta hamaika irakaslek eta Laizek berak trukaturako esperientziak jaso dira.

Monografiko berria



hik hasi
Irakaslearen erakundeak